

ARDITA BETI ARDIT.¹

ESANGIA EGINTZE BATIAN

ETA BERSUAN ANTOLATUA LIBREKIRO BESTE LIBURUCHO BATETIK.

Lenbiziko iruditegia.

MACHIN eta PELLO *pasiatuaz lasterkiró.*

MACHIN. Gaizki dijua au Pello.

PELLO. Gaizki, Machin, dena:

MACHIN. Zer andre itz putsua!

PELLO. Zer andre zekena.

¿Etziran bada esan
kalian lajakó
nindubela, bi ardit
zor dizkatalakó?

MACHIN. Pagatu nik zor aiyek!

zorrak nik pagatú!,
albaneza berriro
besteri pegatu!...

PELLO. Gaizki gaude onela!

MACHIN. Penagarriya da au!

PELLO. Sabela *gur gur* daukat.

MACHIN. Oraindikan barau!

PELLO. Izkribatuak dauzkat

liburu, bersuak,
neronen burutikan

guziyak sortuak.

Alargun on gillea,

Atoz betigabéz,

Uda eta neguban,

Senarraren ordéz.

Chomin, Andre Jošepa,

Zurekin naiz geró.

Chanton, Urrapapito,

Erko, Pastelero,

ta diralarikanen

nik jarriyak orla

sinistu nai dirazu

baraurik nagola?

MACHIN. Bada ni boto biltzen

ninduten nekatu,

Madrilla bigaltzeko

gure diputadu

On José Chaolaga;

eta bere alde

(1) Composicion premiada con *Un accésit* en el certamen verificado en Pamplona en 1884. (V. pág. 357).

- zenbat lan egin nuben
Pachikuri galde.
Badirade jaun arri
botuak emanak,
ume jayo berriyak
nola ill ziranak.
Tonto samar batzuek;
guazen, guztitará,
ogeitikan pasiak
uste det zirala.
Eta naizu sinistu
landu arren ala
kaliaren gañian
laja nindutelá?
- PELLO. Nik ez logratutzia
lan bat sueldokua,
amaiseicho bat milla
errialekua.
Naiz Aministradore
edo Gobernari....
onla ni egotia
gezurra dirudí.
- MACHIN. Arrazoya daukazu!
Ni berriz izanik,
¡ni!, aitaren semia
dudik ezduenik.
Perratzalle argiya
anairik zarrená...
onela arkitzia
ez da bada pena!
- PELLO. Zer egiñ nezake
oraiñ.
- MACHIN. Kalien gañian!
- PELLO. Gaizki egiña
- MACHIN. Izanik
aiñ errez nai balú
On Jose Juan aundiyak
neretzat billatu
- lantegi bat, naiz lenaz
daguena bigaldu...
- PELLO. Guazen, bat igo dedin
bestia beeratu.
- MACHIN. Ori dá
- PELLO. Irudí bat
- MACHIN. Gizona!
Ia.
- PELLO. Bizitegi au
ondo dakizuna
María Orti-k dauka
zeiñ dan alarguna,
eta aurreratuak
nik dedanez aitu,
millaka errialak
izan biar ditu.
- MACHIN. Eta!
- PELLO. Gaur modan daude
prestamenak,
- MACHIN. Baña....
- PELLO. Eskatu alargunari
- MACHIN. Ez, ez,
- PELLO. Gozotsua da guztiz,
- MACHIN. Ezetz;—Ez aldakizu
atzo deiturikan,
bere bizitegira
zer pasa zitzaidan.
Machin—esanaz—egin
nai bazeniraké
loteriko chartela
artzia meseré:
usatzen detana da
milla eun da bi.
Segirán! esan eta
billa nintzan sarri:
Diru bat eman ziran
ezkutu loriya,
diztiazten zubena:

gutzizko berriya:	PELLO.	Norbait dator
arrek jarri ninduben	MACHIN.	Ote dá... Jesus! berá
aguro tentatzen	PELLO.	Echandria!
arrek jarri ninduben	MACHIN.	Echandria!
okerka pentsatzen.		Zakar dator
Kalian nijuala	PELLO.	Ai! galdubak gera. ¹
pentsatuaz...		

VICTORIANO IRAOLA.

LA GRUTA DE SAN VALERIO EN MONDRAGON.

(À MIS QUERIDOS AMIGOS LOS COMPAÑEROS DE EXPEDICION.)

«...Al lado de su vida positiva tenia su vida de imaginacion.. en la cual el hombre sólo goza por mitad de los beneficios del Creador.»

(X. B. SANTINE.)

Il me semble me trouver dans les palais des génies.... dont les matériaux sont des purs diamants, des perles et des rubis.»

(A. DE LAMOTHE.)

El veranose va, y sus cálidas brisas, que maduran los frutos y deshojan los árboles, templan en nuestro país la atmósfera convirtiendo, como dice un poeta, esta parte de la estacion en una de las más plácidas del año.

Entre el efecto que nos produce el sol, al dejarnos ver destellos de sus rayos que doran, en parte, argentadas nubes, y la brisa que

(1) Los que deseen adquirir uno ó varios ejemplares de esta obra que se halla ya impresa y de la que solo publicamos la primera escena, pueden dirigirse á su autor. (*Legazpi. 5. San Sebastian.*)